



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP. KODEA 2019CONB0009
COD. EXP.

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	HITZARMENAK
TITULARRA TITULAR	UDABERRI GURASO ELKARTEA
HELBIDEA DIRECCIÓN	AZKOITIA
NAN DNI	

AZKOITIKO UDALA ETA XABIER MUNIBE IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENA.

Alde batetik, ANGEL MARTIN jauna, Azkoitiko Udalako Kirol zinegotzia eta P2001800H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Bestetik, MARIJOSE ZUBIA anderea, Xabier Munibe L.H. Ikastolako zuzendaria eta Xabier Munibe ikastolaren izenean

AZALTZEN DUTE

- Indarrean dagoen araudiaren arabera (ikus 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena), udal administrazioei dagokie foru organoek egin eta onartutako eskola kirolari buruzko programak aurrera eramaten koordinatuki laguntzea.
- Eskola – kirolari buruzko 160/1990 Dekretuko 11.artikuluak diotenaren arabera, ikastetxeak dira eskola kirola praktikarako oinarrizko eremua eta ikasleei kirola egiteko bidea ireki behar dienak, antolaketa, heziketa eta administrazioaren arduradun izanez.
- Arautegi horri jarraituz, Azkoitiko Udalak eta XABIER MUNIBE L.H. Ikastolak, eskola kirola begiratu eta kudeatzeko egitura garatzeko ikastolaren parte-hartzea interesgarritzat jotzen dute.

Bi alderdiek duten interes horren ondorioz, hitzarmen hau sinatzen dute ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHEN.- XABIER MUNIBE L.H. ikastolak bere gain hartzen du eskola kirola aurrera eramateko behar den egitura berezia garatzeko konpromisoa, jarduera horiek eskatuko dituzten koordinazio, teknika eta heziketa lanak egiteko balioko duen egitura hain zuzen ere.

Egitura horren barruan eskola kiroleko koordinatzailearen figura egongo da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ikastola izango da koordinatzaile horren eta, beharrezko eskola-kiroleko teknikarien eta zuzendaritza, irakasleria (heziketa fisikoena batez ere) eta guraso elkarteen arteko harremanak zehaztuko dituen, kirol jarduera horiek ikastetxearen heziketa proiektuan txerta daitezzen bermatuz.

BIGARREN.- Eskola-kiroleko Egitura horren barne dauden teknikariak, hau da, koordinatzaile nahiz soilik irakaskuntza-teknikoen funtzioak beteko dituztenak, ikastolaren menpe egongo dira eta hura izango da, horiek izendatzeko arduradun bakarra, behar den gaitasuna izan dezaten bultzatuz, ez bakarrik teknika eta kirol arloan, eskola kirolak dituen heziketa planteamenduko beste alderdi batzuetan ere.

HIRUGARREN.- Ikastolak, eskola-kiroleko teknikari horiek, ikastolaren esparruan nahiz herri mailan antolatuko diren heziketa eta teknifikazio ekintzetan parte hartzera bultzatuko ditu.

LAUGARREN.- Ikastolak eskola-kirola kudeatuko duen Eskola Kirol Kontseiluan parte hartzeko konpromisoa hartzen du, zeinen sorkuntza eta garapena Azkoitiko Udaletxeak bultzatuko duen.

BOSTGARREN.- Ikastolak ikasturte bakoitzerako eskola-kirolaren jarduera programa prestatuko du. Bertan ekintza guztiak sartuko ditu, garatuko diren esparru fisikoa (ikastetxea, kirol elkartea,...) urtaroa (eskola garaian edo oporraldian) eta ekintzaren helburuak (sustapen edo lehiaketa) besteak beste. Jarduera programa Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola -Kirolaren egitarauak ezarritako zuzenbideen arabera, Udaletxearen Kirol-politikaren eta ikastetxe beraren helburuak kontuan hartuz egingo da, herriko gainerako ikastetxeekin koordinatuta.

SEIGARREN.- Ikastolak, indarrean dagoen araudiaren arabera eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola-Kirola Egitarauaren zuzenbideen arabera, benjamin, alebin eta Infantil kategorietan kirol anitzeko egitarau berezia osatzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen du.

ZAZPIGARREN.- Ikastolak eskola-kiroleko heziketa helburuak betetzen direla zainduko du, aipatutako helburuen lorpena bermatuko duen baldintzetan, ikasle guztiek ekintza ezberdinetan parte har dezaten ahalbideratuz.

ZORTZIGARREN.- Ikastolak, herri mailan eskola-kirolaren ekintzak garatzeko sortuko diren beharrak asetzeko bere kirol-instalaketak erabilera erraztuko du.

Instalaketak hauek kalitate nahiz segurtasunezko gutxienezko baldintzak bete beharko dituzte (zelaiak margotuta, kanasta-porterien loturak-fijazioak ea..)



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BEDERATZIGARREN.- Ikastolak herriko kirol-taldeekin harremanak bultzatuko ditu. Horren helburua, ikasle gazteenak kirola egiten hasi behar direnean, kirol-taldeen zerbitzu teknikoen parte-hartzea lortzea da, beti ere, ikastolak finkatutako helburu hezigarrien arabera. Era berean, adin zehatzetan eta kirol-mota bakoitzaren ezaugarrien arabera, ikastolak behin eskolaratzea amaitu ondoren ikasleak kirol taldeetan sar daitezten bultzatuko du, errendimendu nahiz aisialdi helburuekin.

HAMARGARREN.- Ikastola izango da, Eskola Kiroleko Egitura mantentzeko beharrezko lirabideen finantzabideak zehazteko ardura izango duena. Diru iturri horien artean, partaideen, ikastetxeko titularraren edo guraso elkartearen ekarpenak, subentzio publikoak edo beste edozein laguntza sar daitezke.

HAMAIKAGARREN.- Azkoitiko Udalak eskola-kiroleko jarduerak kudeatzeko, herriko ikastetxeek eta udalak berak osatutako egitura eratu eta garapena bultzatzeko konpromisoa hartzen du, horretarako behar diren baliabideak hartuz.

HAMABIGARREN.- XABIER MUNIBE L.H. Ikastolak Eskola Kirol Kontseiluaren funtzionamendurako arautegia ezagutu eta onartzen du.

HAMAHIRUGARREN.- Udalak, bere ahalmenen arabera, izaera publikoa duten kirol-instalaketuen erabilera eskola-kirolaren ekintzetarako uzteko konpromisoa hartzen du, udalerriko kirol instalazio guztien erabilera koordinatu baten barruan.

HAMALAU GARREN.- Gipuzkoako tokiko erakundeei kirol arloko diru laguntzak emateko deialdia urtero atzeratzen denez, 2018/2019 ikasturteko diru laguntza, Foru Aldundiak 2018an emandako diru laguntzean xedatzea adostu zen lehengo urtean.

Horren ondorioz, Eskola Kirola Egitura garatzeko, Udalak 2018-2019 ikasturtean, 6.771,35 €-ko diru laguntza emango dio XABIER MUNIBE L.H. ikastolari. Xabier Munibe ikastolak gutxienez beste horrenbeste jarri beharko du eta Udalak kopuru berdina aurreratuko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordean.

Diru laguntza ekarpen batean egingo da hitzarmena sinatu eta ikastetxeak ondoko dokumentu hauek, aurkeztu ondoren.:

- 1.-Aurreko ikasturtearekiko egindako aldaketa nagusiak: helburu, funtzio edota antolamenduzkoak. Egiturarekiko sortutako arazoak, iradokizunak etab..
- 2.- Eskola kirol jardueren urteko programa.
- 3.- Eskola kiroleko koordinatzailearen lan egoera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- 4.-Heziketa-jolas izaerako jardueren partaide kopurua.
- 5.- Norgehiagoketa jardueren talde kopurua.
- 6.- Eskola Kiroleko Monitorean zerrenda.
- 7.- Balantze ekonomikoa eta aurrekontuaren banaketa.

HAMABOSTGARREN.- Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru laguntzekin, eta gainontzeko sarrerekin. Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturriei buruzko zehaztapena aurkeztu beharko du. Edonola ere, ezingo da gain finantzaketarik izan, eta egoera hori gertatzen bada, diru laguntza murriztuko zaio Udaberri guraso elkarteari.

HAMASEIGARREN.- Hitzarmen honetan aipatzen den Eskola Kirol Kontseiluaren sortze, garapen eta sendotze prozesuaren gainbegiraketa Udalak egingo du, horretarako XABIER MUNIBE L.H. Ikastolak eskatutako datu eta informazioa eskaintzeko konpromisoa hartzen duelarik.

HAMAZAZPIGARREN.- XABIER MUNIBE L.H. Ikastolak Hitzarmen honetako klausulak ez betetzeak hitzarmena desagitea ekarriko du eta, ikastetxeak haren kontura jaso dituen zenbatekoak itzultzera behartuta egongo da.

HAMAZORTZIGARREN- Hitzarmen hau 2018ko irailaren 1a eta 2019ko ekainaren 30a bitartean egongo da indarrean eta, bien adostasunez, urtero luzatu ahal izango da, hurrengo ikasturteari dagozkion eranskinak hitzarmenari gehituz.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiearekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Azkoitiko Udala
Angel Martin

Xabier Munibe ikastolako zuzendaria
Marijose Zubia



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>